

Egun on, Andres Urrutia Euskaltzain burua,
Egun on, Euskaltzaindiako gainerako kideak,

izan zaitezte ongi etorriak Zarautza.

Eskerrik asko Euskaltzaindiari gaur Zarautzi eta Basarriri abegi egiteagatik.

Santi Onaindiak aipatzen zuen, bi bertsolari geratuko zirela Euskal Herrian memoriarako. Lehena Enbeita Zaharra izendatzen zuen, eta bigarrena, Basarri. Gaur, zorionez, aitor dezaket, askoz bertsolari on gehiago dituztela izan Euskal Herriak eta Zarautzek.

Basarriekin hasi, Nikolas Zendoia, Pello Esnal, Andoni Egaña, Iñigo Mantzisor... bertsolari asko eta asko hezi ditu herri honek, eta ordainetan, denek zor diote, zuzenean edo zeharka, euren bertsoen apurren bat Basarriri. Nikolas Zendoiak aitortzen dionez, *“garaiko bertsolaritzari duintasuna eman eta itxura eta mamiz eguneratzen ahalegin berezia egin zuen. Bertsolaritza taberna eta sagardotegi-zuloetatik plazara/antzokira atera zuen”*.

Nago, ez dagoela egungo bertsolaritza ulertzerik bere ekarpenik, dotoreziarik eta ahaleginik gabe.

Hori baino gehiago zen ordea Iñaki Eizmendi zena: idazlea, kazetaria, mitinlaria... Baina, batez ere, XX. Mendeko gertakari askoren kronista izatea da niretzat bere balore nagusia. Basarrik hitza jarri zion mendearen zati handi bati prentsan eta irratian, eta bere doinura edertzen ere jakin zuen aski mingotsa zena.

Ez nuke, herriko alkate naizen aldetik, bizian zehar pairatu zituenak ahaztuta jarraitu nahi. Gerra ezagutu zuen, Ertzain ibili zen, geroztik ihesean bizitzera lehenik eta trabajadoresetan aritzera zigortua izan zen urte luzez gero... Herri honek, Euskal Herriak eta herri honek, Zarautzek, bizitakoa ezagutu eta gorde zuen, gero hura kontatuz eta kantatuz.

Zarauztar bezala, herri hau maite zuenaren eredutzat ditut, baita ere, Ene Zarautz maite bertso sorta eta herriko jaietan abesten dugun Pelaio deunaren ereserkia.

Horregatik guztiagatik, eta Azken Portu taberna bertsoaren habia egin zuelako urte askoan, aurten, bere lana gogoratu nahi dugu, bere jaiotzaren mendeurrenean. Bertsolari handi bat, ohorezko Euskaltzainak merezitako aitortza jasoko du aurten, baina bere baloreei uko egin gabe, herritartasuna, memoria eta bertsolaritza jasoaren bidez.

Herri hau maite zuelako eta herriak maite duelako,
Herri honen memoria gorde zuelako eta herri honen memoria bizia delako.

Eskerrik asko berriz, gaur hemen izateagatik Euskaltzaindiari.

Eskerrik asko Zarauzko herriaren izenean.